



Euskararen aldeko gazte ekimen berria

Beterri-Buruntzan Burrumba gazte taldea martxan jarri da / 5



Urnietako Etxeberri plaza jaietan murgilduko da asteburu honetan / 6



Andoaingo eta Urnietako dantza garaikideen eskaintza, denboraldi berrirako prest / 2-3



MATRIKULA OFIZIALA 2026-2027

BERRIA! Espainiera atzeritarrentzat: A1 - A2

Frantsesa A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2

Ingelesa A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2* - C1*

* Ikastaro erdipresentzialak ere.



MATRIKULA ZABALIK:
Irailaren 1etik aurrera

Gutxieneko adina:

Espainiera: 16 urte 2026an betetzea

Frantsesa: 14 urte 2026an betetzea

Ingelesa: 16 urte 2026an betetzea

Prezioa:

72,36€

IKASTURTE OSOA

www.eitolosaheo.hezkuntza.net - info@eitolosaheo.net - 943 899 622

BRADERIE

Irailak 17-19

Irailaren 17an txistulariak
18:00-20:00



S2 SALKIN
bertatik bertara



Eusko Jaurlaritza



"Dantzarekiko interesa eta zaletasuna badago"

CRISTINA ETA LEIRE ANDREU KLAAP DANTZA ESKOLA, ANDOAIN

Hamar urte bete ditu Andoaingo akademiak. Ametsa errealitate bilakatu dutela aitortzen dute eta, beraz, ikasleekiko oso eskertuta daude



Bi ahizpak Andoaingo dantza eskolan, aste honetan. AIURRI

Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Hamar urte egin dituzue. Sendotu eginda dago zuen eskaintza. Espero zenuten horrelako ibilbidea osatzea hasi zinetenean?

Egia esan, ez. Hasieran, amets bat zen guretzat, ia iristezina zirudiena. Dantzan aritu gara betidanik, eta urte asko eman ditugu hainbat eskola eta herrialdetan dantza klaseak jasotzen eta gure formakuntza aberasten. Baita txapelketa ugari tan parte hartzen ere. Biek unibertsitateko ikasketak ere egin genituen, baina momentu batean gure ametsa errealitate bihurtzeko aukera sortu zen, eta ez genuen zalantzarik izan.

Eta hemen gaude, hamar urte geroago, oso eskertuta. Urte hauetan zehar gure ikasle guztiek amesten jarraitzeko aukera

eman digute, eta hori da guretzat gauzarik politena.

Hala ere, ez da erraza gaur egun dantza-eskola bat irekita mantentzea. Askotan ez da ikusten horren atzean dagoen lan eta ordu kopurua, eta batzuetan iruditzen zaigu dantza ez dela behar bezala baloratzen. Askotan, pausoak ikastea edo koreografia bat prestatzea besterik ez dela pentsatzen da, baina dantza klase baten atzean askoz gehiago dago gure ustez.

Haur eta gazte ugari erakartzen dituzue. Zein da zuen ustez Klaap dantza eskolaren gakoa edo sekretua?

Gure ustez, gakoetako bat eskaintza zabala izatea da. Estilo desberdinetako klaseak eskaintzen ditugu eta irakasle ezberdinekin lan egiten dugu, ikasleek aukera desberdinak ezagutu eta

ahalik eta prestakuntza osatzea jaso dezaten. Izan ere dantza klase batean gauza ugari lantzen ditugu: diziplina, emozioak, talde lana eta dantzari gisa hazteko baliabide ezberdinak. Dantzarien hazkundea eta etengabeko formakuntza funtsezkoak dira guretzat.

Horrez gain, oso garrantzitsua da guretzat eskola espazio seguru izatea. Inor epaitua edo aztertua sentitu gabe, norbera izateko eta askatasunez adierazteko lekua izatea nahi dugu.

Helduak ere zuekin ari dira. Zein eskaintza duzue helduentzat?

Helduentzat ere hainbat aukera ditugu: dantza garaikidea, urbanoa, jazza, eta Pilates.

Guretzat oso garrantzitsua da klaseak deskonektatzeko, gozatzeko eta taldean lan egiteko espazioa izatea. Heldu askok pentsatzen dute dantzan hasteko berandu dela, baina lehenengo pausoa eman eta hesi hori gainditzen dutenean, askotan konturatzen dira dantza ongizate fisiko eta emozionalerako ihesbide zoragarria izan daitekeela.

Azken finean, ez dago dantzan hasteko adinik. Garrantzitsuena gogoia izatea da eta norberari aukera ematea.

Aurtengo eskaintza zein izango da?

Aurtengo eskaintzari dagokionez, adin, maila eta estilo ezberdinetara egokitutako klase ugari ditugu. 3 urtetik aurrera hasi daitezke haurrak dantzan, eta, beraz, txikientzat, gaztetxoentzat zein helduentzat eskaintza zabala dugu.

Estiloei dagokienez, urbanoa da gure eskaintzaren oinarrietako bat, eta bere barruan hainbat estilo eta teknika lantzen dira. Horrez gain, jazz-funk, dantza garaikidea, Pilates eta beste hainbat aukera ere eskaintzen ditugu.

Aurten, gainera, klase rotati- boekin jarraituko dugu. Estilo

eta irakasle ezberdinekin lan egiteko aukera ematen dute, eta bereziki interesgarriak dira noizean behin etorri nahi dute- nentzat edo beren formakuntza aberastu nahi duten dantzarien- tzat.

Urtero, kanpotik etorritako irakasleekin hainbat "workshop" (klase bereziak) ere antolatzen ditugu. Guretzat oso garrantzitsua da ikasleei dantzari gisa hazteko eta esperientzia berriak bizitzeko aukerak eskaintzea dantzaren munduan profesio- nalak diren irakasleekin. Izan ere, guk geuk ere, gure prestakuntzan, toki batetik bestera mugitu behar izan dugu irakasle eta estilo ezberdinengandik ikasteko. Es- perientzia hori gure eskolara ekartzea oso aberasgarria iru- ditzten zaigu: gure ikasleek, etxetik gertu eta herrian bertan.

Interesatuak zer egin behar du izena emateko?

Interesa duen edonor jar daite- ke gurekin harremanetan, tele- fonoz, posta elektronikoz, sare sozia- len bidez edo zuzenean dantza eskolara bertaratuta.

Eta, batez ere, galdetzeko edo probatzeko beldurrik ez izatea esango genieke. Zalantzak iza- tea guztiz normala da, eta ba- koitzari hobekien egokitzen zaion aukera aztertzea da ga- rrantzitsuena. Horregatik, kla- se bat probatzea gomendatzen dugu beti: esperimentatu, eza- gutu eta ikusi ea zuretzat ego- kia den.

Azken finean, dantzan hasi nahi baduzu, lehenengo pausoa ematea da garrantzitsuena. Gai- nerakoa, elkarrekin aurkituko dugu.

Basteron eta Sanjuanetan erakustaldi apartak egin dituzue. Zer moduzkoak izaten dira aurreko asteak? Urduri egoten zarete?

Urte osoan hainbat ekitalditan parte hartzen dugu eskolako talde ezberdinekin. Dantza Pro- fesionalen Elkartea antolatzen dituen erakustaldietan, gonbi- datzen gaituzten emanaldietan, Naturaren Doinuak bezalako proiektuetan... Aukera bakoitza gure ikasleek oholtza gainean dantzaz gozatzeko eta ikasitakoa partekatze-ko aukera bat da.

Baina, eskola bezala, indar eta protagonismo handiena duena Basteron egiten dugun ikastur- te amaierako emanaldia izaten da. Dantza eskolak ilusioz, gogoz eta lan handiz prestatzen du emanaldi hau hilabeteetan zehar

eta egun horretan urduritasuna egoten den arren, ikasleen aur- pegiak ikustea, oholtza gainean sentitzen dena partekatzea eta familiek haiekin batera une hori bizitzea izugarria izaten da.

Sanjuanetan ere parte hartzen dugu, baina kasu honetan beste modu batean. Eskolako talde batzuk aukeratzen ditugu eta dantza eskolaren zertzeladaxo bat eskaintzen dugu, herriko jaietan ere gure txokoa izan dezagun.

Zer nolako maila dago zuen gaztetxoaren artean?

Gure gaztetxoaren artean izuga- rrizko maila dago! Andoainen eta inguruan dantzarekiko in- teresa eta zaletasuna badagoela uste dugu, eta hori oso pozgarria da guretzat.

Dantza eskolan dagoen maila ikusita aurten txapelketetan parte hartzea erabaki dugu. A ze erronka daukagun aurretik! **Dantzarekiko interesa badago, ikusita zenbat jende mugitzen den zuen ikuskizunetan.**

Bai, oso pozik gaude daukagun harrerarekin urtez urte guregan sinisten jarraitzen dutenekin eta baita ikasle berrie-kin ere.

Hamargarren urteurrena dela eta zerbait berezia egingo duzue?

10.urteurrena ospatzeko sorpre- sak egongo direla besterik ezin dugu aurreratu...! Oraingo- z, ezin dugu gehiago kontatu.

Non ikusten duzue zuen burua etorkizunetan?

Etorkizunari begira, batez ere, dantzarekiko dugun pasioari eusten ikusten dugu geure burua. Hamar urte hauetan une eta etapa ezberdinak bizi izan ditu- gu, momentu onak eta ez hain onak ere bai, eta egunerokoan gorabeherak egon daitezke, bai- na guretzat funtsezkoena da hasieran amets hau errealitate bihurtzeko izan genuen ilusioa eta indarra ez galtzea.

Dantzarekin gozatzen jarrai- tu nahi dugu, eta gudan kon- fiantza jartzen duen jendearekin bide hau partekatzen jarraitu nahi dugu. Dantza munduan erreferente izaten jarraitzea, alegia.

"KLAAP DANTZA ESKOLAK HAMAR URTE EGIN DITU ETA OSO ESKERTUTA GAUDE"

"Sormena sustatu nahi dugu Kronia akademian"

ERIK FRUTOS KRONIA DANTZA AKADEMIA, URNIETA

Ekimen berria martxan jarri da Urnietan, dantzari eta dantza bizitzeko esperientziari lotuta. Errekalde kalean dute egoitza eta bertan parte hartzeko aukera zabalik dago

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Aurkeztu zuen burua, zertan datza zuen ekimenak?

Erik Frutos naiz, 32 urteko urnietarra. Urte askoan dantzaren munduan murgilduta egon naiz, Urnietan, ordea, ez dut inoiz espaziorik aurkitu dantzarekiko dudana zaletasuna partekatzeke eta nire burua adierazteko. Bestalde, dantzak kulturaren alorrean gero eta pisu handiagoa du, eta jendea hobeto sentitzeko lagungarria da. Errealitate horretatik abiatuta, Kronia dantza eskola martxan jartzea erabaki genuen, hain zuzen ere, sormena sustatu eta esperientziak partekatzeke.



Erik Frutos urnietarra. AIURRI

Guretat oso garrantzitsua da inor epaitua sentituko ez den espazio bat eraikitzea. Libreki espresatzeko espazio bat eraiki nahi genuen.

Zein adin tarteri zabalik dago zuen ekimena?

Ez dago adin tarte zehatzik. Alde batetik, ikasle gazteak ditugu, 16 urtetik azpikoak; bestetik, takoiekin dantzatzaren duten ikasleak daude, 18 urtetik gorakoak; eta, azkenik, nagusienak ditugu, 35 urtetik gorakoak.

Dantza bizitzaren erakusten duzuela diozue.

Bai, dantza mugimendu gisa ulertzen da, guk berriz beste zentzu bat ematen diogu, mugimenduen bitartez sentimenduak espresatzeko irakasten dugu. Hau da, ez da bakarrik mugitzea, zentzu batekin mugitzea baizik.

Urtean bi ekimen handi antolatzen dituzue. Zehaztuko zenituzke?

Ikasturte amaierako emanaldia antolatzen dugu, eta gabonetan pare bat eguneko dantza-festibala, adin guztiei zuzendua egongo dena. Horren inguruan beste hainbat espazio sortu nahi ditugu, adibidez, merkatu bat antolatzea pentsatu dugu, umeek ukimena garatzeko eskulanetarako espazio bat ere bai, eta gorputz-adierazpena lantzeko beste tailer bat ere bai. Ikusteko dago, hala ere, beste espazio batzuk sortuko ditugun.

Interesatua dagoena nola jarri daiteke zuekin harremanetan?

Lokalera gerturatzeko esango nioke. Informazioa nahi badu, gu prest gaude emateko, edo zuzenean probatu nahi badu, klaseetara batzea gomendatuko nioke, lehen bi asteetako klaseak doakoak baitira. Bi astez etor zaitezke probatzera. Gainera, gure lokala familien beharretara egokituta dago, Berrasoeta parkea ondoan dugu umeak

bertan egoteko, eta lokalaren ondoan ere taberna bat dugu bertan lasai egoteko.

Zer behar da dantzan hasteko?

Gogotsu egotea da garrantzitsua. Horrez gain, norberaren burua ezagutzeko prest egon behar duzu. Horretarako, funtsezkoa da jarrera onarekin etortzea eta jarrera itxia ez izatea ariketa berriak probatzeko eta errealitate berrietara irekitzeko. Era berean, garrantzi handia ematen diogu beldurrak alde batera uzteari, gure helburua horiek lantzea da kanpoko iritziek gure mugimenduak baldintza ez ditzaten. Hain zuzen ere, beldurrak eta adierazteko moduak lantzeko, aurrerago, hainbat antzerki-klase martxan jartzea pentsatu dugu.

Errekalde kalean zaudete. Interesatua dagoena hurbildu daiteke zuen ekimena bertatik bertara ezagutzera?

Noski, beso zabalik jasoko dugu, irrifar batekin eta inor epaitu gabe. Gure proiektua dantza-eskolarekin hasi da, baina baditugu beste hainbat ekimen ere. Instagrameko erabiltzaile izena eta webgunearen izena Kronia.estudio da.

"Gakoa ikasleak eroso sentitzea da"

BAKARTXO ARABAOLAZA LASA JOSEBA&BAKARTXO DANTZA AKADEMIA, ANDOAIN

Ibilbide luzea bezain oparoa du Ama Kandida etorbidean dagoen dantza akademiak. Andoaindik eta inguruetako udalerrri askotatik hurbiltzen dira dantzazaleak

Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Ikasturte berrirako nola doa matrikulazioa? Fidela da, oro har, zuen hartzailegoa?

Tangoa dantzatzaren duten ikasleak oso fidelak dira. Tangoa zainetan sartzen zaizula esan ohi dute. Gainera, beharrezkoa da egonkor mantentzea eta entrenamenduei jarraipena ematea, batez ere hobetu nahi baduzu eta, oro har, dantzaz disfrutatzeko. Jende helduagoa, orokorrean, fidelagoa da.

Umeen eta nerabeen kasuan, dantza urbanoa da arrakasta handiena duena. Ikasle horietako askok errepikatu egiten dute, giroa oso ona delako.



Bakartxo eta Joseba. AIURRI

Gorabehera handiagoak bachtan egoten dira. Azken urteetan oso ezaguna egin da, eta jende askok probatu nahi izaten du, baina batzuek desengainuak izaten dituzte. Hala ere, irakasle gisa, oso pozik nago, ikasle gehienek konpromisoa hartzen dutelako, behintzat ikasturteari dagokionez.

Tangoa eta antzeko dantzak ikasteko, esaterako, urrutiko ikasleak dituzue.

Bai, Andoaingo ikasle bakarra dugu, eta guztira tangoa dantzatzaren duten 90 ikasle ditugu. Ikasle asko beste herri batzuetatik dator, espresuki tangoa gure eskolan ikasteko, Joseba

eta bion lana gustatzen zaielako. Beste dantza-modalitateetan, berriz, Andoaingo gazte asko ditugu, eta inguruko herrietatik ere asko etortzen dira.

Noiz hasiko zarete eta interesatuak nora joan behar du?

Gazteak irailean hasi dira, eskolarekin batera. Helduekin desberdina izaten da, baina normalean, saiatzen naiz ikasturtearekin batera irailean hasten. Bestalde, aste honetan, ate irekien jardunaldiak antolatuko ditugu, eta egunero doako klase bat eskainiko dugu jendeak eskola, dantza modalitatea eta irakaslea ezagutzeko. Badago dantzarekiko interesa duen jendea baina ez dakite ea zein motatako dantza izango den gehien gustatuko zaiena. Guk probatzeko aukera eman nahi diegu. Interesa duenak gure telefono-zenbakira deitu dezake (658 758 452), edo zuzenean guregana hurbildu eta doako klaseetan probatu.

San Juan jaietan jendetza erakarri zenuten zuen ikuskizunera.

Jendaurrean aurkezteko data garrantzitsua da, zailtzarrik gabe. Jasotzen dugun harrera da nabarmenduko nukeena. Izu-

garria izan zen, eta ilusio handia egiten digu oraindik.

Zer behar da dantzarekiko pasioari eusteko?

Hamaika arrazoi daude. Dantzarekiko pasioa mantentzeko dagokionez, gakoa haiek eroso sentitzea da, eta guk horretan lagundu behar diegu. Izan ere, dantzatzea ez da erraza, muga batzuk gainditu behar dira: koordinazioa, lotsa, norbere buruarekiko segurtasun eza... Horregatik, garrantzitsua da irakasle batek edukia ondo irakasteaz gain, giro ona sortzea. Horri esker, ikasleak eroso sentitzen dira eta dantzan jarraitzea erabakitzen dute.

Euskaldunok fama dugu ez dugula ondo dantzatzaren. Horrela dela iruditzen al zaizu?

Oinarri kultural indartsua da goela uste dut. Hemengo dantza tradizionalak dantzatzeko modu oso zurrinak dituzte. Aldiz, beste dantza-modalitateetan, dantza latinoetan edo kizomban mugimendua gorputzaren erditik jaiotzen da, eta, oro har, mugitzeko oso modu desberdina dute, eta hori dantza euskaldunetara eramatea oso zaila da.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

EUSKAL
HERRIA
2027

Aurreko larunbatean egin zuten Sagardo Eguna. SAGARDOZALE ELKARTEA

Bertako ekoizleak, Sagardo egunean

Andoaingo eta Urnietako sagardogileen ordezkariak zabala elkartu zen Donostian, aurreko asteburuan. Haien alboan izan ziren ere bi udalerrietako alkateak eta hainbat zinegotzi. Trikitixa eta bertso doinuez lagunduta ospatu zen 39. Sagardo Eguna

Iraia Sanchez Arregi ANDOAIN

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko kide diren 32 sagardotegik hartu zuten parte ekitaldi jendetsuan. Antolatzaileen arabera, 4.000 lagunetik gora igaro ziren Donostiako Konstituzio plazatik. 2025eko uztak emandakoarekin ekoiztutako 6.000 sagardo botila inguru zerbitza-

tu zituzten. Eskualdeko ekoizleek ordezkariak zabala eduki zuten jai-egunean. Andoaingo Gaztañaga eta Mizpiradi, eta Urnietako Altuna eta Oianume sagardotegiek hartu zuten parte.

Haiei babesa ematera hurbildu zen bi udalerrietako ordezkariak politikoa. Andoni Alvarez eta Jorge Segurado alkateak,

esaterako, eta baita bi udalerrietako zinegotzi gehiago ere.

Askotariko eskaintza lantzen da Gipuzkoako sagardotegietan, 192 produktutik gora ekoizten dira: sagardo naturalak, apardunak, ekologikoak, krintzak, egurrean ondutakoak, muztio naturala, bereziak zein Euskal Sagardoa Jatorri Deitura.

Aurtengo edizioan une berezia gorde zuten Hernaniko Rufino sagardotegiko Jabier Ansorena eta Marian Matas omentzeko.

Ekitaldian bertan, antolatzaileek informazio puntu bat jarri zuten bisitariak sagardoaren inguruko irteeren, asteburu pasen zein txangoen informazio sakona eskuratu ahal izateko.

Euskal Sagardoa, eguneko protagonista

Sektoreak ekoiztutako Sagardoak izan ziren protagonista, Euskal Sagardoak eta azken urteetan eragin duen dibertsifikazio guztia. Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak bederatzigarrena izan zuen 2025ekoa eta uztia hori izan zen bisitariak Donostiako Sagardo Egunean dastatu ahal izan zuena. Euskal Sagardo desberdinak dastatzeko aukera egon zen, sagar mota bakarrez eta bi sagar motaz egindakoak, sagasti jakineko sagarrez egindakoak, egurrean ondutakoak, aurreko urteko amaren gainean ondutakoak, eta abar. Horien artean bertako sagar hutsez egindako sagardoek protagonismo berezia hartu zuen.

Topaketa hori sagar-uzta berriaren atarian ospatu ohi dute. Sagardotegi gehienek datozen egunetan hasiko dute ekoizpena, nahiz eta batzuek dagoeneko hasi diren, sagarrak goiz heldu direlako. Iaz ez bezala, euri gu-

txi egin du, eta horrek fruitu txikiagoak ekarri ditu. Ekoizpena 2025ekoa baino txikiagoa izatea espero da, nahiz eta eskualde batetik bestera aldeak egongo diren. Sagar-etekinak handienak Arabako zenbait gunetan eta Gipuzkoako Goierri eskualdean espero dira; aldiz, ekoizpen txikiagoa aurreikusten dute Gipuzkoako gainerako eremuetan eta Bizkaian.

On line erreserba, etengabe, gorantz

Aipagarria da aurtengo denboraldian nabarmen igo dela sagardo dastaketak sagardotegietan egiteko eskaera. Horrekin batera, internet bidezko gainerako eskaintzan goranzko joera geldiezia da. Sagardotegietako bisita gidatuen erreserbak %84an hazi dira, online mahai-erreserbak %15ean eta internet bidezko sagardo salmenta %19an. Bertako bezeroek sagardotegietako bisita gidatu laburrak egiteko aukeraketari eutsi diote eta bezero horiek dira otordua egiteko mahaia ere online erreserbatzen duten gehiengoa, %76. Katalunia da online sagardo gehien erosten duen erkidegoa, erosketen %28a izanik.

Azkenik, sektorearen sustapena bultzatzen jarraitzeko, Euskal Sagardoa Jatorri deiturak eta Laboral Kutxak lankidetza-hitzarmena sinatu zuten.

ESKUALDEKO EKOIZLEEN ORDEZKARITZA ZABALAK PARTE HARTU ZUEN

ANDOAINGO ETA URNIETAKO ALKATEAK ETA HAINBAT ZINEGOTZI HURBILDU ZIREN DONOSTIARA

PROTAGONISTAK



Ainara Isasti eta Naroa Urbizu Urnietako gazteak. AIURRI

"Urnietan ez da euskara asko entzuten, ezta gazteen artean ere"

AINARA ISASTI ETA NAROA URBIZU BURRUNBAKO KIDEAK

Euskararen aldeko gazteen mugimendua zabaltzen ari da Beterri-Buruntzan. Urnietara iritsi da, Hernaniko eta Astigarragako gazteekin lankidetzan

Lide Ruiz Telleria URNIETA

2022ko udan Hernanin sortu zen Burrumba gazte euskaltzaleen taldea. Aurtan, aldiz, sarea Astigarraga eta Urnietara zabaltzen duzue. Zer dela eta hartu duzue erabaki hori?

Naroa Urbizu. Bioi Burrumbaren parte izateko proposamena Hernanitik iritsi zitzaigun. Hasiera batean, taldea Hernanin sortu zen, baina, gerora, taldea hiru herrietara zabaltzea erabaki zen, hiruen artean elkarlanean arituta indar handiagoa izango zuela pentsatu zutelako, eta gu horren parte izatea erabaki genuen.

Herri bakoitzak egoera soziolinguistiko desberdina du. Urnietaren kasuan, zein da egiten duzuen diagnostikoa? Zein helburu zehaztu dituzue?

Ainara Isasti. Guk orain mahai-gainean ditugun datuak duela bost urtekoak dira, azken neurketa eta azterketa 2021ean egin baitzen. Aurtan ikerketa berria egingo dute, baina, momentuz, datu horiek aintzat hartuta finkatu dugu gure lana. Urnietaren kasuan, emaitzek adierazten dute, kale-erabileran azken 20 urteetako daturik okerrenak jaso zirela, eta gazteen artean soilik %13k hitz egiten dela euskaraz. Guk egunerokoan dugun pertzepzioa da Urnietan ez dela euskara asko entzuten, ezta gazteen artean ere. Hori dela eta, ezin dugu baieztatu egoera ona denik. Gure helburu nagusia, hain zuzen ere, gazteengan euskararen aldeko kontzientzia piztea da, eta herrian euskararen presentzia handitzea.

Beterri-Buruntzaren kasuan, zein helburu finkatu dituzue?

N.U. Euskaldunak diren gazteak elkartzea eta antolatzea, eta euskaraz hitz egiteko eta euskaraz gauzak sortzeko espazioak eraikitzea.

A.I. Horrez gain, euskarazko harremanak sortzea, bai beste herrietako jendearekin, bai herri bereko jendearekin.

Harremanetan zaudete euskararen aldeko beste mugimenduekin? Zein sare mota eraiki dituzue?

A.I. Egia da Burrumba udaberrian jarri genuela martxan, horregatik, oraindik ez gara harremanetan jarri beste mugimendu edo elkarterekin. Hala ere, egia da Burrumban dauden batzuk Euskal Herrian Euskaraz taldeko kideak direla. Bestalde, au-

rrerago herri bakoitzeko eragile euskaltzaleekin edo talde euskaltzaleekin harremanetan jartzeko asmoa dugu, baina, momentuz, ez gara horretan hasi.

Gazteen artean, euskararen alde antolatzeke grina dagoela esango zenuke? Oro har, zenbat gaztek osatzen duzue Burrumba?

N.U. Oraintxe bertan, 40 kide inguru gara. Taldea irekia da, beraz, aurrerago ikusiko da ea jende gehiago ekimenara batzen den ala ez.

Bestalde, euskararen aldeko grinari dagokionez, gure artean badago euskararen alde antolatzeke eta biltzeke grina, baina, orokorrean, ez dugu sumatzen jendearen artean grina handirik dagoenik euskararen alde antolatzeke, ezta oro har, beste gai batzuen inguruan antolatzeke ere.

Euskararen normalizaziorako bidean, zein dira zuen ustez, hartu beharko liratekeen neurriak? Zein eskakizun egiten diezue erakundeei?

A.I. Egia da guk Burrumba ez dugula sortu erakundeekin zuzenean harremanetan jartzeko, hori ez da gure helburua. Guk bilatzen duguna da herritarrengan kontzientzia piztea, eta haiengan eragitea, ez hainbeste erakundeengan, horretarako badaude beste talde edo erakunde batzuk. Burrumbaren helburuak gazteei eta herritarrei zuzenduta daude, ez hainbeste erakundeei.

Zer esango zeniekete euskararen aurkako oldarraldiarekin eta egun hizkuntzak bizi duen errealitatearekin kezkatuta dauden gazteei?

N.U. Lehen aipatu dudana bezala, Burrumba talde irekia dela esango nieke, eta nahi izanez gero, talde honen parte izateko aukera dutela azpimarratuko nuke. Interesa izango balute antolatzen diren deialdietan parte hartzeko gonbita luzatuko nieke.

Urnietako jaiak, Sanmielak, gainean ditugu. Burrumba presente egongo al da jaietan?

A.I. Bai. Baserritarren asteburuan egun osoko egitaraua antolatu dugu Burrumbako kideek Urnietan. Urriaren 3an izango da, larunbatean, eta hori izango da antolatuko dugun lehen deialdia. Egitaraua hurrengo astean edo bi aste barru zabaltuko dugu. Beraz, bai, Burrumba presente egongo da jaietan.

Jon Ander Ubeda URNIETA

Etxeberri plazako bizilagunen-tzat ikasturtea hasteko modu bikaina da auzoko jaietan murgiltzea. Auzune berria da eta haur eta gazteak aintzat hartzen dituen egitaraua osatu ohi dute. Zezen mekanikoa, jolasak eta apar-festa, esate baterako, haur eta gaztetxoek begira antolatu ohi dituzte. Jaietan, nola ez, mahaiaren bueltako hitzorduak oso estimatuak dira eta horrelakorik ere ez da faltako.

Aurtengo egitarauari erreparatuta, bi hitzordu azpimarratuko genituzke. Alde batetik, The Hastelen's musika taldearen kontzertua. Usurbilgo Zumarte musika eskolaren abaroan sortua, nagusiki, bertsioak egiten dituzte. Partaideak honako hauek dira: Alex de Miguel, Iñaki Zugasti, Joxean Anduaga, Adolfo eta Alex Romero, Gaizka Lasa eta Ainhoa Pikabea. Noaua astekariako hemerotekari erreparatuta, euren hitzetan, taldearen aurkezpen-txartela: "Zumartekin hazi gara. Astelehenetan biltzeko ohituraren harira, grazia horretatik etorri zen The Hastelen's izena jartzea, asteari indarrez ekiteko. Astelehenari beste aurpegi batekin begiratzen diogu. Astelehenak existitzen segi arte jarraituko dugu". Kantu ezaguen bitartez, ostiral iluntzean tarte atsegina igarotzeko aukera izango da.

Trotamundos zirku-konpainia da jai-egitarauan nabarmendu daitekeen beste hitzordua. Monotoniaz eta gauzen norabidea aldatzeko aukeraz hausnarketa egitea proposatzen dute: zerk behartzen gaitu zirkuluan jarraitzea? Umorea lagun, akrobaziak, objektuen manipulazioa, hula hoops-ak eta clown-a erabiliz, hitzik gabeko istorioak kontatzeko gaitasuna dute. 2015ean Mailen Mansillak eta Luciano Mezzotero sortu zuten zirku konpainia Argentinan, Buenos Airesen. 2016az geroztik Bilbon daude finkatuta. Aurtengo jaiak borobiltzeko ekitaldia izango da, jaietara emateko baliatuko dutena.

GAZTETXOEN GOGOKO HITZORDUAK EZ DIRA FALTA: ZEZEN MEKANIKOA, JOLASAK, APAR-FESTA...



The Hastelen's musika taldea zuzenean ariko da ostiral iluntzean. AIURRI

Etxeberri plazan jaiak, asteburu honetan

Ikasturte berriaren hasiera arintze aldera, ostiral arratsaldean, Etxeberri plaza jaietan murgilduko da. Bide batez, Sanmielak gertuago dauden seinalea izan ohi da. Iraila, jakina denez, ekitaldiz beteriko hilabetea da Urnietan



"Finito, finito" ikuskizuna iristear da Urnietara. AIURRI




Ostiralean hasiko dira jaiak.

Asteburu osoko ospakizunak

Irailak 11, ostirala
18:30 Txupinazoa.
19:00 Zezen-mekanikoa.
20:30 The Hastelen's musika taldea.

Irailak 12, larunbata
11:00 Diana Txanbolin txistulari bandarekin.
11:30 Lasterketa eta jokuak.
13:00 Herri bazkaria.
16:30 Bingoa.
18:30 Apar-festa.
19:30 Urdaiazpiko-ebakitzaileak.
20:00-00:00 Abiba Diskojaia.
21:00 Herri-afaria.

Irailak 13, igandea
12:00 Txirrista irristakorra.
18:00 Trotamundos zirku konpainia. Eguraldi txararekin, Egape ikastolako jolastoki estalian.



Lasterketa larunbat goizean da.



Aurorak Goizuetako Fiestak berotzeko baliatzen dituzte. FELIX LOIARTE / KRONIKA

Aurorak, irailaren 19an, Urnietako kaleetan

Jaien etorrera iragartzeko ekimen berria antolatu du Manttale euskaltzaleen elkarteak: Aurorak. Iraganean kutsu erlijiosoa izan zuen baina, egun, Euskal Herriko hainbat txokotan, gaurkotasunari loturiko ekimena da. Estrainekoz egingo dute Urnietan

Jon Ander Ubeda URNIETA

Ez daude geldirik egoteko Manttale euskaltzaleen taldeko partaideak. Dagoeneko finkatu dute kultur paisaia Kantazaun egitasmoa, euskal kantagintza hauspotzeko hileroko hitzordua. Sanmieletan ere bazkaria antolatu ohi dute eta, aurtent, bertsolarien orde, bakarriketa-saioa iragarri dute. Irailaren 27an izango da eta txartelak Bikainen jarriko dituzte salgai.

Aurorak, ekimen berria

2026ra iritsita, jaien atarian, ekimen berri batekin datoz. Goizuet eta Hernani aldean ezagun zitzaizen Aurorak izeneko ekimena eta, halako batean, "eta, Urnietan, zergatik ez?" lagun artean sorturiko pentsamendua errealitate bilakatuko dute. Adi, irailaren 19an, goizeko 08:00tan hasita, kalez kale, eta akordeoia lagun dutela, kantuan ariko baitira. Doinu eta letra sorta

prest dute, liburuxka batean jasota, Aurorak abesten ariko diren kide bakoitzak bana izan dezan. Aurtengoa prestatzeko entreguetan ari dira, egunotan.

GOIZEKO 08:00TAN HASITA, KALEZ KALE, AKORDEOIA LAGUN DUTELA, KANTUAN ARIKO DIRA

Dagoeneko bat egin dute eta beste bi dituzte aurretik: irailaren 10ean eta 17an, arratsaldeko 18:00tatik 20:00tara, Kiroldegian.

Euskarak espazioa galdu du kalean eta hori berreskuratzea da Manttalen xedeetakoa. Aurorak abian jartzearen arrazoi nagusia, beraz, euskara kalean maizago entzutea da.

Aurorak, tradizio handiko ekimena

Nafarroako eta Arabako hegoaldean tradizio handiko ekimena da. Eraldatuz joan den ohitura da Arabako Alea tokiko hedabideak jasotako artikuluan agertzen den modura: "Arabako zenbait tokitan auroren usadioa mantendu dute, eta, gehienetan, tradizioak eboluzio bat izan du, kutsu erlijioso soiletik harago joanez. Erlijioaren alorrean geratu diren aurorek, berriz, zailago izan dute bizirautea. Abes-tera ateratzen den lagun taldea zirkulu batean bildu ohi da, eta, ondoren, kantei ekiten diete. Normalean, musika tresnaren batekin laguntzen dute aurora. Agurain, Guardia, Lantziego, Lagran, Labraza, Oion, Pipaon edo Santikurutze Kanpezu herrietan mantentzen dute, modu batean edo bestean, auroren tradizioa. Oionen kasuan, urte bakoitzean aldatzen dute letra –gaurkotasunari lotuta dagoen kanta bat prestatzen dute– zein musika bera ere".

Laster entzungo ditugu Aurorak, beraz, Urnietako kaleetan.

ENTSEGUAK DEITU DITUZTE IRAILAREN 10EAN ETA 17AN, 18:00TAN HASITA, KIROLDEGIAN



Oianume sagardotegia. AIURRI

Oianumeko bertso-afaria, jaien atariko klasikoa

Aurtengo protagonistak Eli Pagola eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek izango dira

Erredakzioa URNIETA

Bertso doinuek beteko dute Sanmielen itxaronaldia. Hala, irailaren 18an, Oianumen kantari ariko dira Beñat Gaztelumendi eta Eli Pagola bertsolariek. Amaia Agirreren esanetara, afalostea girotuko dute errimaz eta doinuez. Saioa, aurreko urteetan bezala, Aiurrik eta Poxta Zaharrek antolatu dute. Txartelak dagoeneko salgai daude, 35 euroko prezioan, Andoainen (Stop liburudenda, Aiurri) eta Urnietan (Matxo, Frontoi eta Oianume). Menu itxia izango da baina begetarianoa eskatzeko aukera eskainiko da. Aukera horren alde egiten duenak txartela eskuratzeko unean bertan egin behar du eskaera.

Azken urteotan Urnietako gazteen eta Aiurriren arteko lankidetzaren bitartez antolatu da Oianumeko hitzordua. 2024ko bertso afarian kantari aritu ziren Onintza Enbeita eta Sustrai Colina. Lehenago, 2022an, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus hurbildu ziren Urnietako bertso saiora.

Aurtengoan ere giro eta bertso onak ziurtatuta daude. Gainera, aski ezaguna zaie Urnietako Gaztelumendi eta Pagola bertsolariei.


GIPUZKOA
Foru Aldundia

Babestutako hedabidea


Urnietako
udala



Alkizako eta Xoxokako taldeak, elkarrekin, Alkizako jaietako desafioan. AIURRI

Alkizan jokatu zen desafioa eta, itzulikoa, Xoxokako jaietan

Alkizan jaiak ospatu zituzten aurreko asteburuan eta egitarauari erreparatuta bazen hitzordu azpimarragarria: Alkizako gazteen eta Xoxokakoen arteko herri-kirol desafioa. Xoxokako jaietan, urrian, egingo dute itzulikoa

Xabier Lasa ALKIZA

Alkizako festalekuan, jendetzaren aurrean eta lagun giro ederrean, bi taldeen arteko desafioa egin zuten. Errenbantxa, Xoxokan izango da hango jaietan, urriaren 9an.

Lehen desafioa Aitor Sorarrainek aurkeztu zuen, eta honako probetan neurtu zituzten indarrak Alkiza eta Xoxokako gazteek: aizkora, trontza, arrijasotzea, txinga, lokotxa biltzea, zaku saltoa, karretila lasterketa, zakua bizkarrean lasterka, eta, korrika. Argazki-bilduma eta bideoa ikusgai daude Aiurri.eus webgunean.

Aizkora:

Alkiza: Igor Gorostidi eta Mikel Mendizabal.

Xoxoka: Iñigo Olarra eta Aritz Pellejero.

Trontza:

Alkiza: Izaro Iruretagoiena.

Xoxoka: Maider Lanbra eta Lander Cia.

Harrijasotzea:

Alkiza: Xuhar Roteta.

Xoxoka: Beñat Goenaga.

Txinga:

Alkiza: Naia Goenaga eta Aitor Sorarrain.

Xoxoka: Ainhoa Urruzola eta Iker Elgarresta.

Lokotxa biltzea:

Alkiza: Oinatz Goenaga eta Oihana Fernandez de Larrinoa.

Xoxoka: Ibaia Usabiaga.

Zaku saltoa:

Alkiza: Markel Odriozola.

Xoxoka: Beñat Goenaga.

Karretillan lasterketa:

Alkiza: Iraide Pellejero eta Oier Olasagasti

Xoxoka: Ainhoa Urruzola, Mattin Usarralde eta Iker Elgarresta.

Zakua bizkarrean lasterka:

Alkiza: Enara Iruretagoiena.

Xoxoka: Ibai Usabiaga.

Korrika:

Alkiza: Amets Mujika.

Xoxoka: Lander Cia eta Mattin Usarralde.



Ainhoa Urruzola lehiatu zen txingan, Xoxokaren taldean. AIURRI



Ibai Usabiaga, ekimen betean. AIURRI



Beñat Goenaga, harria altxatzen. AIURRI

BERTSO-AFARIA

Irailak 18, ostirala. 20:30

OIANUME, URNIETA

Bertsolariak: Beñat Gaztelumendi. Eli Pagola. Gai-jartzailea: Amaia Agirre

Prezioa: 35 euro

Txartelak salgai:

Urnieta (Frontoi, Matxo, Oianume),
Andoain (Aiurri, Stop)

Antolatzaileak:



AIURRI





Artxiboko irudia. AIURRI

Ahalduntzean sakontzeko ikastaro-sorta, Andoainen

Emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa bultzatzeko egitasmo ugari eskainiko ditu Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak. Jarduera guztien xehetasunak biltzen dituen eskuorria datozen egunotan jasoko dute herritarrek

Iraia Sanchez Arregi ANDOAIN

Jabekuntza Eskolak emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa-ren sustatzaile izateaz gain, harremanetarako eta esperientziarako espazio ere badira. Eta Andoain norabide horretan sakontzen ari da azken urte haue-tan.

Eskaintzen diren ikastaro eta lantegi guztiak doan izango dira, baina aldez aurretik jar-duera bakoitzean izena eman beharko da. Plazak mugatuak direnez, plaza kopurua gaindi-

tuz gero, aldez aurretik izen eman duten emakumeen artean zozketa egingo da. Andoainen erroldatutakoek lehentasuna izango dute. Lekurik lortzen ez dutenak, berriz, itxaron zerrendan geratuko lirateke. Ikastaroetan izena eman ahal izateko, gutxienez 16 urte beteta eduki beharko dira. Izena emateko epea ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago itxiko da, eta jarduera bat aurrera ateratzeko gutxienez 6 emakumek eman beharko dute izena.

Mota guztietako jarduerak eskuragarri

Taupada ondoeza edo gaizki tratatzen dituztela sentitzen duten emakumeei zuzendutako zerbitzua da. Emakumeen autonomia sustatzea bilatzen du, eta

IKASTAROETAN IZENA EMAN AHAL IZATEKO, GUTXIENEZ 16 URTE BETETA EDUKI BEHARKO DIRA

ondoeza jasaten duen emakume-ari laguntza eskaintzeaz gain, haren ingurukoei ere eskainiko die. SexGuneak, berriz, sexu eta bikote aholkularitza profesional eta isilpekoa eskainiko du. Bi zerbitzu horiek jaso ahal izateko aurretiko hitzordua eskatu beharko da.

Musikara gerturatu eta jende-ari gozarazi nahi diotenentzat Batukada feministan parte hartzeko aukera ere egongo da. Horrez gain, jarduera fisikoa egin eta kirol munduan murgil-du nahi duenak eskaladako hastapenetarako oinarriak jaso ditzake.

Ongizate emozionalerako eta autozainketarako lantegiak ere egongo dira. Norbera bere buruarekin eta inguruarekin hobeto sentitzen ikasteko balioko dute. Horrekin batera, perimenopausia edota menopausia garaian aurkitzen diren emakumeentzako nutrizio ikastaroak egongo dira. Horien bidez, emakumeei etapa horietako aldaketa fisiko eta emozionalak hobeto ulertzen lagundu eta elikaduraren nahiz ohitura osasungarrien bidez sintomak arintzeko tresnak emango zaizkie. Kosmetika naturala II ikastaroaren bidez ere osasunerako onuragarriak diren produktu kosmetikoak egiten ikasteko aukera egongo da.

Kultur arloari lotuta ere hainbat jarduera eskainiko dituzte. Batetik, "memoriaren sokak: arte-hezkuntza feminista" lantegian Rut Olabarri artista garaikidearen lana oinarri hartuta txontxongilotzaren artea ezagutuko da. Bestetik, "ibilian irakurri: zahartzeko moduak euskal literaturan" irakurketataldean zahartzeko maneren inguruko literatur lan laburrak eta pasarte literarioak izango dira hizpide. Gainera, jatorri aniztetako emakumeek elkar-gune multikultural bat ere izango dute. Bertan, emakume eta migratzaile gisa izandako bizipenak elkarbanatuko dituzte, eta beste kultura batzuk ezagutzeko espazio ere izango da.

JABEKUNTZA ESKOLAN ESKAINTZEN DIREN IKASTARO ETA LANTEGI GUZTIAK DOAKOAK DIRA



Artxiboko irudia. AIURRI

Euskaltzaleen hitzordua, Kaimuturrean, hilaren 25ean

Bi kokapen ditu aurtengo deialdiak: Guipuzcoano zaharraren egoitza eta Kaimuturra

Erredakzioa ANDOAIN

"Andoaingo euskera, bihotzetik kalera! Egiogun lekua gure ka-leetan euskarari!" goiburu bikoitz hori ardatz hartuta, 2024ko irai-lean, Kaimuturreko lehen ekitaldia antolatu zuen Manuel Larramendi Kultur Bazkunak. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da eta, dagoeneko, badu data: irailak 25, ostirala. Bi urte atzera, egitasmoak bazuen xede argia: herrian eta herritarrengandik gertuago egongo zen egoitza eskuratzea. Bada, bi urteren bueltan, hamaika ekinaldi eta saiakera egin ostean, xede hori errealtate bilakatu da. Izan ere, aurtengo hitzorduko afitxan bi kokapen zehazten dira: Kale Berria, 50 eta Kaimuturra. Lehe-na Guipuzcoano zaharra da. Herrikideen aurrean, beraz, egingo da egoitza berriaren aurkezpen ekitaldia. Bertako instalakuntzatan azalpenak emango dituzte Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko kideek. Eta, handik, Kaimuturrera abiatuko dira euskaltzaleak. Arratsaldean giotzeko Aiduru musika taldeak kantu-sorta joko du. Axi Aranburu (gitarra), Larraitx Arriola (ahotsa), Iñaki Gozalo "Wentxi" (bateria), Esti Mujika (teklatura) eta Jon Huizi (baxua) dira Aiduru taldeko kideak.

POSTONTZIA

SORABILLAKO AUZO ELKARTEA ANDOAIN

Irtenbiderik onenaren bila

Ez da batere erraza Andoaindik igarotzen diren N-1 eta A-15 errepideen arteko ipar eta hegoaldeko lotuneei irtenbidea aurkitzea. Zailtasun horrek hainbat eztabaida sortu du eta Andoaingo Udalak, eztabaida hauen arteko konponbidea aurkitu asmoz sortu zuen lan mahai bat. Mahai horretan erabaki zen Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako irtenbide posibleen inguruko azterketa teknikoak egitea hainbat baldintza kontutan harturik. Aipatu azterketa teknikoak ebatsi zuen, irtenbiderik egokiena egungo errepidearen egokitzapena eta lazo lotunea iparraldean eta 3. karrila hegoaldean zirela zalantzarik gabe irtenbiderik onenak. Horrezaz gain, adituen hitzaldiak antolatu ziren

herritarrei ahalik eta informaziorik osatuena eskaintzeko asmoz. Aditu guzti guztiek baztertu zuten autobide berri baten eraikuntza, horrek ekarriko lituzkeen ondorioak kontutan hartuta. Argudio gehiagorik ezean, azken honetan biderkatu egin dira pertsonen buruzko deskalkifikazioak eta, txosten teknikoak zalantzan jarri ezina dela uste dutenei, Andoainen interesen aurka joatea egozten zaie. Zalantzan jartzen da ere Andoainen alde egiten ote dugun edo bestelako interesak ote ditugun: salaketa hau guztiz koldarra iruditzen zaigu pertsonak seinalatzen direlako faltsukerietan oinarrituz. Guztiok gara irtenbiderik onenen bila gabiltzan andoaindarrek

eta horretarako argudioak behar dira eta ez seinalamenduak eta falaziak. Berretsi nahi dugu, egun, onartzen ditugula proposatutako irtenbideak eta beraien hobekuntza eta geuk ere Arartekoarengana joko dugula lan mahaian eta denon artean onartutako prozesu demokratiko guztiak errespetatu daitezkeen. Amaitzeko esan, ez dugula onartzen Andoaingo Alkateak andoaindar ez bagina bezala trata gaitzan eta laguntzarik eskaini ez izatea ibilbide guzti honetan. Sorabillatarrak ditugun erronkei aurre egin ahal izateko ez zaigu inoiz eskaini ez bitartekorik eta ez inolako laguntzarik, Sorabillako arazoak Andoaingo arazo ez balira bezala.

POSTONTZIA

ERRESPETATU ANDOAIN ANDOAIN

Parte-hartze masiboa alegazioak aurkeztean

Errespetatu Andoain plataformak eskerrik beroenak eman nahi dizkie herritar guztiei, joan den uztailan alegazioak egiteko egindako lanari erakutsitako parte-hartze, inplikazio eta babes jendetsuagatik. LAZOak gure herriari eta Gipuzkoari dakartzkien kalte larriek bultzatu dituzte andoaindarrek eta gipuzkoarrak alegazioak aurkeztera. Badakigu Andoainen bakarrik 2.828 erregistratu direla. Plataformak aurkeztu duen eskaerari Aldundiak erantzun ofiziala emateko zain gaude, guztira zenbat alegazio aurkeztu diren jakiteko. Oraindik ez daukagu datu hori, baina informaziorik ez dagoenez, Gipuzkoa osoan parte-hartzea handia izan dela ondorioztatu dezakegu. Are gehiago, 3.000tik gora alegazio izan daitezkeela esatera ausartzen gara. Datu horiek indartu egiten dute Errespetatu Andoain plataformaren inguruan sortu den mugimendua, eta horiek lanean jarraitzen dugu informazioa kalera hurbiltzeko hurrengo ekintzetan. Bitartean, herritarrei gogorarazten diegu plataformarekin harremanetan jar daitezkeela errespetatuandoain@gmail.com helbide elektronikoaren bidez kontsultak egiteko, informazioa zuzenean jasotzeko, ekintzetan puntualki parte hartzeko edo aktiboki lanera hurbiltzeko. Pozik hartuko ditugu ekarpen guztiak!

Andoaingo emakumeentzako Jabekuntza Eskola

2026 UDZKENEKO IKASTAROAK

Batukada feminista
Astelehenak. Urriak 19, azaroak 2, 16, 30. 18:00-20:00. **Leizaran Institutua.** Botapa Batukada.

Ongizate emozionalerako eta autozainketarako lantegiak
Asteazkenak. Urriak 7, 21, azaroak 4, 18 abenduak 2, 16. 10:00-12:00. **Arrate.** Saioa Garmendia.

Eskalada HASTAPENA
Urriak 15, osteguna, 17:00-20:30. Urriak 16, ostirala, 17:00-20:30. Urriak 17, larunbata, 10:00-13:30. Urriak 18, igandea, 10:00-13:30. **Arrate.** Patri Espinar.

Elektraindar lantegia: argia eskuz esku
Asteazkenak. Urriak 7, 14, 21, 28, azaroak 4, 11, 18, abenduak 2, 9. 17:30-20:30. **Arrate.** Paz Carbajosa.

Ibilian irakurri: Zahartzeko manierak euskal literaturan
Astearteak. Urriak 20, azaroak 17, abenduak 15. 18:30-20:30. **Arrate.** Iratxe Retolaza.

Nutrizioa perimenopausia eta menopausian
Ostegunak. Urriak 29, azaroak 5, 12. 17:30-19:30. **Arrate.** Aitziber Aizpuru.

Kosmetika naturala II
Ostegunak. Azaroak 19, 26, abenduak 10, 17. 18:00-20:00. **Arrate.** Kris Lizarraga.

Memoriaren sokak: arte-hezkuntza feminista
Ostegunak. Urriak 15: **Arrate.** Urriak 22, 29 eta azaroak 5: **Topic** (Tolosa). 17:00-19:00. **Arrate-Topic** (Tolosa). Itzale Laka.

Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala
Astelehenero. 16:30-18:30. **Arrate.** Sorburu.

IZEN-EMATEA ETA HARREMANA:
jabekuntza.andoain.eus
Andoaingo Udaleko **Berdintasun** lanskaila.
Tel. **943 300 830**, luz. **380 - 397**
berdintasuna@andoain.eus
Andoaingo Udaleko **ATARIA**



Bertxin eta Santa Krutz elkarteetako ikastaroak

Adineko herritarrek aintzat hartuta, Leizaran institutuarekin eta Andoaingo Udalarekin lankidetzan, hiru ikastaroren berri eman dute: joskintza, ongizate emozionala eta mugimendua eta osasuna. Izena emateko epea zabaltzear da



Leizarango irakasle eta ikasle taldea, joskintzako irakasleekin, aurreko ikasturtean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Izen-ematea Bertxin edo Santa Krutz elkarteetan egin behar da, datozen egunotan.

Joskintza tailerra

Leizaran Institutuko "Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonentzako Arreta" zikloko ikasleak bidelagun direla egingo dute tailerra. Antolatzaileek tailerraren nondik norakoa azaldu dute: "pertsona nagusien eta ikasleen arteko topagune bat sortu nahi dugu, ezagutzak, esperientziak, bizipenak eta solasaldiak partekatzeko, elkarrekin ikasi eta harremanak sen-

dotzeko giro atsegin eta aberasgarri batean". Ostegunero elkartuko dira. Ordutegia: 11:20-12:15.

"Mugimendua eta osasuna" eta "Ongizate emozionala" dira beste bi tailerrak. "Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikaria" zikloan murgilduta dauden Leizaran Institutuko irakasleek eta ikasleek gidatuko dituzte bi tailerrak.

Mugimendua eta osasuna

Tailerrean mugikortasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko hainbat ariketa eta teknika garatzen dira.

Ongizate emozionala

Ongizate emozionalerako lagungarriak diren teknikak, estrategiak eta baliabideak (musikoterapia, yoga, biodantza...) landuko dituzte.

Bi tailerrak ostegunetan, 10:15etik 11:15era egingo dira, Gazte Lokalean (Ambrosia Olabide eraikina). Bi tailerrak txandakatu egingo dira (ostegun batean lehen tailerra, hurrengoan bigarrena...).

Izena ematea, Bertxin edo Santa Krutz jubilatuen elkarteetan egin beharko da, irailaren 10etik aurrera. Plaza mugatuak dira. Dohainik da.

Andoaingo Ludoteka, ikasturte berrirako prest

Urriaren 2an ospatuko du hasiera festa, eta ikasturtea urriaren 6an abiatuko da Belabi kaleko egoitzan

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko ikasturtean zabaldu zituen ateak Ludotekak, eta aurtengo ere 4-11 urte bitarteko haurrei zabalik izango da. Izen emateko epea irailaren 14an hasiko da eta hilaren 25era bitarte luzatuko da aukera. Ludotekan bertan eman daiteke izena, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara edo, astearte eta ostegunetan, goizeko 11:00etatik 13:00etara.

Jarduera ugari eskainiko dituzte: irteerak, jolasak, irakurketa txokoa... betiere euskaraz.



Martxan jartzean da Andoaingo Ludotekako ikasturte berria. AIURRI



AIURRI

Euskara ikasteko deialdia

Irailak 23ra bitarte zabalik dago matrikula egiteko epea eta 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena. Maila guztiak eskainiko ditu Andoaingo AEKK, A1etik C2ra bitarte, goiz, eguerdi, arratsalde eta iluntzetan. Ikastaro zehatzagoak ere badituzte, hala nola, guraso taldeak, ahozkotasuna eta eguneroko erabilera hobetzeko taldeak eta abar luzea.



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebeze ebeke harpidetza-sistema. Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoaingo. Tel.: 943 300 732. andoaingo@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbifre Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea:

Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak:

Rocio Arias (Andoaingo), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieta).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko eguna

Jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko sortu zen "Mugitu Andoain" eguna. Bada, edizio berria iristear da: Irailaren 19an, udalerriko kale eta plaza askotan, kirolzale ugari jardunean ikusiko ditugu



Aurkezpen-ekitaldian izan ziren herriko kirol taldeetako ordezkari ugari. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN
Jarduera fisikoen eguna ospa-
tuko da Andoainen, datorren
irailaren 19an. "Herrian ditugun
kirol talde eta elkarteek anizta-
sun zoragarria erakusten dute",
adierazi zuen Andoni Alvarez
Lete alkateak eguna iragartzeko
agerraldian.

MUGITU ANDOAIN!
Irailak 19, larunbata
Nordic walking-ikastaroa. +18
Hastapena.

Goikoplaza, 10:00-13:00.
Ibili Andoain. +65
Goikoplaza, 11:00.
Kenpo kai tailerra +8
Zumea plaza, 10:00.
Gimnasia erritmiko-tailerra +6
Zumea plaza, 11:15.
Mendi bizikleta-irteera. +8
Txangoa, Leizaran bailatik.
Goikoplaza, 10:30.
Dantza lerroan. +65
Zumea plaza, 12:15.
Kirol egokitua: Futbola-Eskubaloia-Saskibaloia

Allurralde, 10:30-12:30.
Kirol egokitua: Pala
Goikoplaza, 11:00.
Gravel bizikleta irteera. +18
Zumea plaza, 08:30.
Kangoo jumps probatu. +18
Goikoplaza, 10:30.
Mendi-irteera. +6
Goikoplaza, 10:00.
Duatloia ezagutu. +8
Ubitarte, 10:30.
Arrantza-tailerra
Grazia Garagorri eta Santakruz-
zubiak, 09:00-12:30.



AIURRI

Meza eta hamaiketakoa

Andramari eguna ospatu zuten, asteartean, Sorabillako San Martin elizan. Eta, hein batean, hori izan da udako ospakizunei amaiera emateko ekitaldia. Andoni Ledesma apaizak gidatu zuen meza, Alberto Agirre abesbatzaren abestiekin edertu zena. Ondoren, hamaiketakoaz gozatzeko aukera izan zuten bertan zirenek.



EUSKALDUNA

Memorial bikoitza

Aurreko larunbatean Larramendi Torneoa jokatu zen Ubitarten, gizonezkoen mailan. Etxekoak nagusitu ziren, gainera. Emakumezko Gorengo Erregional mailakoa larunbat honetan izango da eta Euskaldunak Touring eta Landetxa taldeak gonbidatu ditu. 16:00tan hasiko dira partidak. Igandean, berriz, infantil mailako Gurru memoriala jokatuko da.

IRAILAK 12

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA

JAI ALAI

SARRERAK

IKUSKIZUN PARTIDA

ARLUZIAGA · ESKUDERO VS

DESKARGA · GOIKOETXEA VI

BURUZ BURUKO TXAPELKETA (30 TANTORA)

JUANENEA VS

BARRENETXEA IV

IKUSKIZUN PARTIDA

EZKURRA II · ZUBIRI VS

GOIKOETXEA V · AZPIROZ

XXIV. BURUZ BURUKO

EUSKOLABEL

TXAPELKETA 2026

DATOZEN HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN Osasun Etxea
Odola emateko aukera berria.
Irailak 14, astelehena.
16:30-20:30, **Bastero**.

URNIETA Gaztelekua
Odol-emaileen hitzordua.
Irailak 16, asteazkena.
16:30-20:30, **Plazido Muxika**.

IKUSZIRKUS

ANDOAIN Anonima
Vaiven Circo konpainia.
Irailak 18, ostirala.
19:30, **Bastero**.

ANDOAIN Txondor plaza
Argimalutak konpainia.
Irailak 26, larunbata.
18:30, **Goikoplaza**.

IKASTAROAK

ANDOAIN Eskulanak
Egur taila, pintura, eskulanak eta joskintza ikastaroak.
Izen-ematea: Irailak 14-23.
Bastero Kulturgunea.

TAILERRA

ANDOAIN Berdintasun Saila
"Bibollo Tantra: Presentzia, gozamena eta samurtasuna" izeneko hastapen-tailerra antolatuko du bollera eta bisexualei zuzenduta.
Irailak 26, larunbata. Alurralde.
10:30-14:30 / 16:00-18:00.

ASIALDIA

ANDOAIN Matrikulazioa
Ludotekako matrikulazio-epealdia laster zabalduko dute. Online edo presentzialki egin ahal izango da.
Epealdia: irailak 14-25.

MENDI TOUR

URNIETA Mendi film jaialdia
Pelikula onenak, Urnietan ikusgai.
Irailak 22, asteartea.
19:00, **Sarobe**.



Jaiak, Urnietako auzunean, asteburu hnetan. **AIURRI**

URNIETA Etxeberriko jaiak

Irailak 11, ostirala

18:30 Txupinazoa.
19:00 Zezen-mekanikoa.
20:30 The Hastelen's musika taldea.

Irailak 12, larunbata

11:00 Diana
Txanbolin txistulari bandarekin.
11:30 Lasterketa eta jokuak.

13:00 Herri bazkaria.
16:30 Bingoa.
18:30 Apar-festa.
19:30 Urdaiazpiko-ebakitzaleak.
20:00-00:00 Abiba Diskojaia.
21:00 Herri-afaria.

Irailak 13, igandea

12:00 Txirrista irristakorra.
18:00 Trotamundos zirkua konpainia. Eguraldi txarrarekin, Egape ikastolako jolastoki estalian.

URNIETA

Sanmielak

IRAILAK 19

AURORAK HERRIKO KALEETAN
8:00ETAN HASITA

IRAILAK 27


KANTU BAZKARIA
MARIA BLANCO, MANEX ASTIGARRAGA ETA AXIER GALARZA
BAKARRIZKETARIEN PARTE HARTZEAREKIN

BAZKARIA 33€
TXARTELEN ERRESERBA
BIKAIN KAFETEGIAN
IRAILAK 14tik 22ra

ANTOLATZARRA
MANTTALE

SARBESA
SARBESA

ZINEMA



ANDOAIN


BASTERO

El ser querido

Larunbata, 12.
19:30.
Igandea, 13. 19:30.
Astelehena, 14.
17:00, 19:30.

Minions

Larunbata, 12.
17:00.
Igandea, 13.
17:00.



SINOPSISIA

El ser querido

Zuzendaria: Dean DeBlois. **Gidoia:** Dean DeBlois, Cressida Cowellen liburuen oinarrituta.... **Hizkuntza:** Gaztelaniaz. **Generoa:** Zientzia-fikzioa. **Iraupena:** 119 m.


Ikaragarri famatu duten filma, asteburuan, Bastero Kulturgunean

Esteban Martínez (Bardem) zine-zuzendari aski ezaguna da, bai bere pelikulengatik, bai indarkeriak eta gehiegikeriek markatutako iraganagatik. Bere proiektu berrian, Emilia (Luengo) alabari rol bat eskainiko dio, aktore gisa bere ibilbide geldoa bultzatzen laguntzeko aitzakiarekin. Setean elkarrekin bizitzeak urteetan partekatu ez duten hurbiltasuna sustatuko du, baina ordura arte gauditu ez diren zauri zaharrak ere irekiko ditu.



andoa**INDARRA**
euskaraz

ANTZEZLANA



ANDOAIN
BASTERO
Anonima
Irailak 18, ostirala.
19:30, Bastero.

SINOPSIA

Anonima
Konpainia: Vaiven Circo. **Zuzendari artistikoa:** Javier Parra.
Ekoizpena: Miguel A. Moreno “Bolo”. **Zuzendari teknikoa:** Javier Luna. **Koreografia:** Raquel Pretel eta Celia Sako. **Aktoreak:** Jose Maria Martin, Raquel Pretel, Miguel Angel Moreno “Bolo”.

Ikusezinak diren pertsonaien ibilerak

Aretorako, kalerako eta testurik gabeko ikuskizuna da. Ikuskizun zaindua eta maitagarria, non harreman pertsonalek edertasun handiko egoerak sortzen dituzten. Ikuskizun berri hau pertsona ikusezinei egindako omenaldia da. Pertsona horiek ez dira ikusten ez onerako ez txarrerako, ez dira existitzen.



Urnietako Udal igerilekua, igandera bitarte zabalik

Urnietako eta Andoaingo era-biltzaile askorentzat igerileku irekia aukera ona izan da uda honetan. Hiru hilabetez zabalik izan ostean, denboraldia amaierara iristen ari da. Izan ere, igande honetan itxiko baititu ateak. Ostiralean eta larunbatean egun osoz izango da zabalik eta, igandean, goizeko 09:00etatik 14:00ak arte.

Andoaingo Gazte Lokala eta Urnietako Gaztelekua

Andoaingo Gazte Lokala irailaren 9an irekiko dute. Ez da beharrezkoa izango aurrez izena ematea. 12 eta 17 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta, eta asteazkenetik igandera egongo da irekita, 17:00etatik 20:30era. **Urnietako Gaztelekuak** irailaren 14an emango dio hasiera ikasurte berriari eta egun horretatik aurrera zerbitzuaz gozatzeko aukera izango dute 2011-2015 urteen artean jaioteko nerabeek.

Basteroko ikuskizunen sarreraren salmenta

Askotariko hitzorduak iragarri dituzte Basteron. Ikuskizunetarako sarrerak irailaren 14tik aurrera erreserbatu ditzakete bazkideek; eta irailaren 17tik aurrera, berriz, ikuslego zabalarentzat salgai jarriko dituzte Bastero Kulturguneko lehiatilan eta www.bastero.eus gunean.

ZORION-AGURRAK



URNIETA
Lizar, zorionak!
Irailaren 9an hamar urte beteko dituzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.

HERIOTZ-OHARRA

Lourdes Ormazabal Telleria

-Gugan bego-



*Iraganak dakarkigu
zure irudi alaia,
bizitzaz gozaten zekiena.
Hala izan da azken hatsa arte.
Ta horrela gogoratuko zaitugu beti, lagun.*



Zure kuadrilla
Andoainen, 2026ko irailaren 4an

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo.publizitatea@aiurri.eus



Heriotz
oharrak
Aiurri

BEZEROAREN ASTEA

Bidaia baten zozketa!

Irailaren 14tik 20ra zure txartela lor dezakezu

Andoainen erosten baduzu, zure txartela lor dezakezu aste honetan

- Txartelak irailaren 14tik aurrera, agortu arte.
- Zigilua lortzeko epea: urriaren 18ra arte.
- Zozketa: urriak 19, astelehena.

Salkinako komertzioetan 6 zigilu ezberdinekin 2.500€ko balioa duen bidaia baten zozketan parte hartuko duzu.

ANDOAIN

S2 SALKIN
bertatik bertara

ANDOAINGO UDALA

Zuzendakaria

Andoingo Udala



ANDOAINGO
EUSKERA,
BIHOTZETIK
KALERA

EGIGUN DENON ARTEAN!

Ekitaldiaren
aurkezpena
herritar
guztiei zabalik

**IRAILAREN 25EAN,
OSTIRALAREKIN**

18:30

**HASIERA
EKITALDIA**

Kale Berria, 50
(Guipuzcoano
zaharra)

19:00

AIDÜRÜ
Kaimuturra
(espigoia)

AIDÜRÜ
taldearen
doinuekin
gozatuta!

Zatoz
gurekin
eztarria
freskatzera!



MARAVENDI